



<b>IKASTETXEA</b>	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
<b>Arloa/ Irakasgaia</b>	<b>BIOLOGIA-GEOLOGIA</b>	Zikloa / Maila	1. Zikloa-DBH 1.maila
<b>Irakasleak</b>	Jon Ander Urbina Mertxe Zabala	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>1 Errealitatea azaltzeko eskemak egitea</p> <p>2. Problema ebaztea eta ikerketa txikiak egitea</p> <p>3. Hainbat iturri erabiliz gai zientifikoei buruzko informazioa lortzea, erabiltzea eta bere edukia baloratzea.</p> <p>4. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzea.</p> <p>5. Ekosistemari buruzko ezaguera zientifikoa erabiltzea, natura balioesteko kudeatzeko eta naturaz gozatzeko, garapen iraunkorraren alde arduraz parte hartuz.</p> <p>6. Zientziaren izaeraren ezaguera erabiltzea gizateriaren kultura-bilakaeran eta bizi-baldintzen hobekuntzan izandako garrantziaz jabetzeko</p> <p>7. Ematen dituen azalpenak ahoz, bai eta txosten idatzietan ere, argi, ordenan eta zehatz ematea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaki bizidunen ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzea eta deskribatzea, laginak, argazkiak, marrazkiak edo beste bitarteko batzuk oinarri hartuta.</li> <li>- Gako errazak eta behaketa teknikak (lupa binokularra eta mikroskopioa) erabiltzea.</li> <li>- Bioaniztasuna galtzen ari dela ohartzea, eta mehatxupean dauden espezieak babesteko neurriak hartzea justifikatzea.</li> <li>- Norberaren burua zaintzea eta higiena garrantzitsuak direla zenbait patologia prebenitzeko (begietako eta belarrietako gaixotasunak, jarreraren eta kirolaren eraginez egindako lesioak...), onartzea</li> <li>- Esperimentu errazak taldean, uraren propietateak aztertzeke egitea.</li> <li>- Taldean egiten dituen lanen plangintza parte hartzea, baita, lana eta adostutako epeak betetzea</li> <li>- Uraren zikloari buruzko diagramak eta eskemak egitea eta interpretatzea, hainbat motatako informazio-iturriak eta euskarriak</li> </ul>	<p>1. Ea errealitatea azaltzeko eskemak egiten dituen.</p> <p>2. Ea problema ebazten eta ikerketa txikiak egiten dituen</p> <p>3. Ea hainbat iturri erabiliz gai zientifikoei buruzko informazioa lortzen, erabiltzen eta bere edukia baloratzen dituen.</p> <p>4. Ea zientziei buruzko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzen dituen.</p> <p>5. Ea ekosistemari buruzko ezaguera zientifikoa erabiltzen duen, natura balioesteko kudeatzeko eta naturaz gozatzeko, garapen iraunkorraren alde arduraz parte hartuz.</p> <p>6. Ea zientziaren izaeraren ezaguera erabiltzen duen, gizateriaren kultura-bilakaeran eta bizi-baldintzen hobekuntzan izandako garrantziaz jabetzeko</p> <p>7. Ea argi, ordenan eta zehatz ematen dituen azalpenak ahoz, bai eta txosten idatzietan ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen izaki bizidunen ezaugarri garrantzitsuenak, laginak, argazkiak, marrazkiak edo beste bitarteko batzuk oinarri hartuta.</li> <li>- Ea erabiltzen dituen gako errazak eta behaketa teknikak (lupa binokularra eta mikroskopioa).</li> <li>- Ea aitortzen duen bioaniztasuna galtzen ari dela, eta ea justifikatzen duen mehatxupean dauden espezieak babesteko neurriak hartzea..</li> <li>- Ea onartzen duen norberaren burua zaintzea eta higiena garrantzitsuak direla zenbait patologia prebenitzeko (begietako eta belarrietako gaixotasunak, jarreraren eta kirolaren eraginez egindako lesioak...).</li> <li>- Ea egiten dituen esperimentu errazak taldean, uraren propietateak aztertzeke.</li> <li>- Ea parte hartzen duen taldean egiten dituen lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen lana eta adostutako epeak betetzen dituen.</li> <li>- Ea egiten eta interpretatzen dituen uraren zikloari buruzko diagramak eta eskemak, hainbat motatako informazio-iturriak eta euskarriak erabiliz.</li> </ul>



<p>erabiliz.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Gizakiok ur gezaren kudeaketan eta uraren kutsaduran sortu ditugun arazoak ezagutzea.</li><li>- Uraren kudeaketa iraunkorra egiteko jokaerak, eta, kontsumoa murrizteko eta ura berrerabiltzeko, deskribatzea, eta ekintza pertsonalak nabarmentzea.</li><li>- Harriak eta mineralak definitzea, eta desberdintasunak bereiztea.</li><li>- Harri motak (magmatikoak, metamorfikoak eta sedimentarioak) bereiztea, mineral arruntenak, propietate bereizgarriak abiapuntu hartuta.</li><li>- Harriak eta mineralak ezagutzeko gako errazak erabiltzea.</li><li>- Inguruko harrien erabilera arruntenak ezagutzea, eta harri horiek Euskal Herriaren historian izan duten garrantziaz (egur-ikatza, karea, burdina, harrobiak...) ohartzea.</li><li>- Baliabide mineralak amaitu daitezkeela jakitea, bai eta baliabide horiek erazteak eraginak dituela ere. hori guztia kontuan hartzea, landa-azterketak egitean izaten duen jarreran.</li><li>- Materiaren zenbait propietate, kuantitatiboki eta kualitatiboki deskribatzea eta interpretatzea.</li><li>- Esperimentu errazak taldean egitea, materiaren propietateak ikertzeko; batez ere, gasen propietateak, materiaren egitura korpuskularra ezartzen laguntzen dutelako.</li><li>- Tresna zientifikoak (balantzak, probetak...) behar bezala erabiltzea, eta laborategiko segurtasun-arauak errespetatzea..</li><li>- Lan esperimentalaren interesa adieraztea, eta hizkuntza zehatza eta argia erabiltzea.</li><li>- Esperimentuetan lortutako datuak ondo erabiltzea, irudikatze behar dituen taulak eta grafikoak.</li><li>- Materiaren aniztasuna sailkatzea eta ordenatzea, haren ezaugarriak eta propietateak oinarri hartuta.</li><li>- Materialen iraunkortasunak eta birziklapenak duten garrantzia, baliabideak aurrezteko, justifikatzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ea ezagutzen dituen gizakiok ur gezaren kudeaketan eta uraren kutsaduran sortu ditugun arazoak.</li><li>- Ea deskribatzen dituen uraren kudeaketa iraunkorra egiteko jokaerak, eta, kontsumoa murrizteko eta ura berrerabiltzeko, ea nabarmentzen dituen ekintza pertsonalak.</li><li>- Ea definitzen dituen harriak eta mineralak, eta ea nabarmentzen dituen desberdintasunak.</li><li>- Ea bereizten dituen harri motak (magmatikoak, metamorfikoak eta sedimentarioak) eta mineral arruntenak, propietate bereizgarriak abiapuntu hartuta.</li><li>- Ea behar bezala erabiltzen dituen harriak eta mineralak ezagutzeko gako errazak.</li><li>- Ea ezagutzen dituen inguruko harrien erabilera arruntenak, eta ea aitortzen duen harri horiek Euskal Herriaren historian izan duten garrantziaz (egur-ikatza, karea, burdina, harrobiak...).</li><li>- Ea dakien baliabide mineralak amaitu daitezkeela, bai eta baliabide horiek erazteak eraginak dituela ere. Ea hori guztia hartzen duen kontuan landa-azterketak egitean izaten duen jarreran.</li><li>- Ea deskribatzen eta interpretatzen dituen materiaren zenbait propietate, kuantitatiboki eta kualitatiboki.</li><li>- Ea egiten dituen esperimentu errazak taldean, materiaren propietateak ikertzeko; batez ere, gasen propietateak, materiaren egitura korpuskularra ezartzen laguntzen dutelako.</li><li>- Ea behar bezala erabiltzen dituen tresna zientifikoak (balantzak, probetak...), eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.</li><li>- Ea interesatzen zaion lan esperimentalaren, eta ea erabiltzen duen hizkuntza zehatza eta argia.</li><li>- Ea ondo erabiltzen dituen esperimentuetan lortutako datuak irudikatze behar dituen taulak eta grafikoak.</li><li>- Ea sailkatzen eta ordenatzen duen materiaren aniztasuna, haren ezaugarriak eta propietateak oinarri hartuta.</li><li>- Ea justifikatzen duen materialen iraunkortasunak eta birziklapenak duten garrantzia, baliabideak aurrezteko</li></ul>
---	--



## EDUKIEN SEKUENTZIA ( denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

### 1. Ebaluazioa

#### 1. Unibertsoa eta gure planeta:

Unibertsoa.

Eguzki sistema.

Planetak.

Lurra, planeta berezia.

Lurraren higidurak.

Urtaroak.

Ilargia.

#### 2. Atmosfera:

Atmosferaren jatorria.

Egungo atmosferaren konposizioa.

Atmosferaren egitura.

Atmosferaren funtzioak.

Presio atmosferikoa.

Atmosferaren kutsadura.

#### 3. Hidrosfera:

Ura Lurrean.

Uraren propietateak.

Urak bizitzarako duen garrantzia.

Uraren zikloa.

Uraren erabilerak.

Hidrosferaren gaineko ingurumen-inpaktuak.

### 2. ebaluazioa

#### 4. Geosfera. Mineralak eta harriak:

Geosferaren osagaiak.

Mineralak eta harriak.

Mineralen propietateak.

Mineralen sailkapena.

Harriak.

Mineralen eta harrien erabilgarritasuna.

Mineralen eta harrien ustiapena.

#### 5. Biosfera:

Zer da izaki biziduna?

Bizi-funtzioak.

Zer da zelula?

Zelula eukariota.

Antolaera-mailak.

Biodibertsitatea eta egokitzapenak.

Izki bizidunen sailkapena.

Bost erreinuak.



## 6. Animalien erreinua:

Animalien erreinua.

Animalia ornodunen ezaugarriak.

Bost taldeak: arrainak,anfibiokoak,narrastiak,hegaztiak,ugaztunak.

Gizakia.

Ornodunen pertsonontzat duten garrantzia.

## 3. ebaluazioa

## 7. Animalia ornogabeak:

Animalia ornogabeak.

Bost taldeak: poriferoak eta knidarioak/ Platihelmintheak,nematodoak eta anelidoak/ moluskuak/ artropodoak/ ekinodermoak/.

Animalia ornogabeen garrantzia.

## 8. Landareen erreinua:

Landareen erreinua.

Landareen organoak.

Landareen nutrizioa.

Erlazio-funtzioa landareetan.

Landareen ugalketa.

Hazidun landareen sexu bideezko ugalketa.

## 9. Onddoen,protistoen eta moneroen erreinua:

Onddoen erreinua.

Onddoek biosferan betetzen duten funtzioa.

Protistoen erreinua.Protozooak.

Protistoen erreinua.Algak.

Protistoen biosferan betetzen duten funtzioa.

Moneroen erreinua.

Bakterioen garrantzia.

**\*Ikerketa-proiektu kooperatiboak.**

## METODOLOGIA

- Gaiari hurbilketa: ikasgai bakoitzaren lehenengo orrialdetako irudiak, testuak eta galdera irekiak erabili sarrera gisa, dakitena aurreikusteko asmoarekin.
- Gaiaren azalpenak ematen dira, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak prestatuz.
- Guztion artean edo bakarka irakurketa egiten dugu, inportanteenez jabetzeko.
- Lehendik antolatutako eskemak eta kontzeptu mapak osatzen dituzte. Hasiara batean irakasleak eginak izango dira baina, apurka-apurka, beraiek hartuko dute egiteko ardura.
- Honekin batera edukiak bereganatzeko, liburuan dauden ariketak, liburuak dituen fitxa osagarriak eta haien zuzenketa egiten ditugu.
- Hiztegi espezifikoa lantzen da gurutzegramak edo beste ariketaren bat eginez.
- Lan egingo dute bakarka zein taldeka. Saiatuko gara ahalik eta era aktiboan eta autonomiaz lan egin dezaten.



- Gaiaren bukaeran kontrol bat egingo dute.
- Laborategira joango gara gaiak aukera ematen dutenean.
- Gaiaren bukaerako AZTERKETA ZIENTIFIKORANTZ atala burutuko dute laguntzarik jaso gabe, beraien autonomia sustatu eta ulermen maila balioztatu ahal izateko.
- Talde batean ingelesez emango dute
- Google drive erabiliko dute Ingeleseko taldekoek koaderno digitala bezala
- Google classroom erabiliko dute Ingeleseko taldekoek
- Internetetik ateratako informazio zein jarduerak erabiliko dituzte
- Bideoak zein Interneteko ikus-entzunezko iturriak erabiliko dira.

EBALUAZIO TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ahozko eta idatzizko probak</li><li>• Galdetegiak</li><li>• Banakako eta taldeko lanak</li><li>• Lan monografikoak</li><li>• Behaketa-txantilioiak</li><li>• Kontrol-zerrendak</li><li>• Ikasgelako koadernoak</li><li>• Laborategiko lana</li><li>• Norberak egin ditzazkeen aportazioak</li><li>• Jarrera: eguneroko materiala ekarri, ardura zientifikoz lan egitea, partehartzea, etxeko zein klaseko lana burutzea, besteenganako errespetuz jokatzeko.</li></ul>	<p><b>Azterketak:</b> Kontzeptuak bereganatu eta ulertzea. Arrazonamenduak eta dedukzioak egitea. Froga irekiak, ariketak. Hizkuntza zientifikoaren erabilpena <b>%60 (ebaluazio bateko azterketen mediak 4 eman beharko du gutxienez, aprobatua lortu ahal izateko)</b></p> <p><b>Koadernoak:</b> Proposatutako ariketak, eskemak eta lanak egitea. Proposatutako lanak epean entregatzea. Ariketak eta lanak osatuta eta txukun aurkeztea. Ariketak behar bezala zuzentzea. <b>%20</b></p> <p><b>Kontrol orriak:</b> Klasera puntualtasunez etortzea. Beharrezkoa den materiala ekartzea. Eskola orduetan lan egitea. Portaera proposa izatea. Etxeko lanak egitea. Interesa adieraztea, arreta jartzea, parte hartzea. Ikaskideei laguntza eskaini eta errespetua adieraztea <b>%20</b></p>

## EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...]

- Gaiarekin erlazioatutako errefortzu ariketak edota lanak egin behar izatea, berreskuratzeko asmotan.
- Hurrengo ebaluazioan zehar aurreko edukien errehabilitazio azterketa egitea, aurreko puntukoa egin eta gero.
- Ez-ohiko azterketa gainditzeko ebaluazio irizpideak gainditu behar dira.
- **Azterketak gaindituta izanik, koadernoak eta jarrera dela eta suspenditzen duenean, lan txostena eta koadernoak berreginda entrega dezala.**
-



## OHARRAK

Aurten lehenbiziz institutuan 1. Mailako talde batek programazio honi jarraituko dio ingelesez. Puntu guztiak berdinak izango dira. Aldaketak egongo dira metodologian, beste hizkuntza bat erabiliko dugulako.